

Honako liburuxka hau paper biziklatuan inprimatu da. Botatzekotan, laga ezazu edukiontzi urdinean. Eskerririk asko. ♻️



Elgoibar BERDEA

DEKALOGOA



ELGOIBAR BERDEA Elgoibarko Udalak prestatu duen ekintza programa da, 2010 urtean zehar, ohitura berriak eta iraunkorrakoak bultzatzeko abian jarriko dena, gure bizilagunen, gure herriaren eta gure inguruaren ongizatea bultzatzeko.



Gipuzkoako Foraldea
Euzko Jaurlaritzako Foraldea



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXa!

1- IRAUNKORTASUNA SUSTA EZAZU

ELGOIBAR BERDEA (2010) :


Udalak, Tokiko Agenda 21 delakoaren bitartez, lanean dihardu urteetan zehar Elgoibar herri iraunkorra izan dadin. Ildo horretatik, aurten, ELGOIBAR BERDEA izeneko programa berezia jarriko du abian.

Elgoibartar guztien lankidetzaz aktiboari esker, Udalak hainbat ekintza bideratuko ditu, 2010 urtean zehar: hala nola, olio jasotzeko edukiontzia jartzea, konposta egiteko proiektu pilotuak bideratzea, udalerriko baserrietan energia berriztagarriak instalatzeko aukerak baloratzeko eta energiaren eraginkortasunari buruzko azterketak egitea.

ELGOIBAR BERDEA programaren xedea ondorengoa da: gure ekologiaren, ekonomiaren eta gure herrian izango diren belaunaldi berrien mesedetan, bizitzeko ohitura berriak eskuratzea.

Gogoan izan hiru gako hauek: hondakin gutxiago sortu, berrerabili eta birziklatu.

“Sistema bat iraunkorra izan dadin, besoak behar dira sistemari eusteko.”



2- HONDAKIN GUTXIAGO SORTU: EROSKETA EKOLOGIKOA

EROSKETA IRAUNKORRA

Etxeko hondakinak murrizteko ez dago hondakin gutxiago sortzea baino gauza hobirik. Nola lor dezakegu hori? Erosketak egiteko ohitura iraunkorrak izanda.

Erosketak egin behar dituzunean, kontuan izan itzazu aholku ximple hauek, eta hondakin gutxiago sortuko duzu:

1. Egin ezazu zerrenda bat, eta bertan jartzen duena besterik ez erosi.
2. Eraman itzazu oihalezko poltsak edo erosketatarako orgatxoa, ez eskatu plastikozko poltsarik.
3. Eros itzazu sasoian sasoiko produktuak, ahalik eta estalgarri gutxien dutenak.
4. Eros itzazu formatu handiko produktuak, produktu kontzentratuak eta solteko salgaiak.
5. Eros itzazu iraupen luzeko produktuak, ez behin bakarrik erabiltzekoak.
6. Ez erosi estalgarri gehiegi duten produkturik.

“Akaso, zuk behin bakarrik erabiltzeko produktuak erosi ahal izango dituzu, baina gure planetak, ez.”



3- BERRERABILI

GARBIGUNEA (2010eko abendua)

Hemendik gutxira GARBIGUNE bat izango dugu Elgoibarren, Arriaga industrialdean. Bertan, etxean sortzen diren hondakin guztiak utzi ahal izango dira, eta langile autonomoek eta profesionalak sortzen dituzten hondakin asko eta asko ere bai.

Gune honen xedea da kontrolatu gabeko hondakinen isurketa murriztea. Gainera, Garbiguneari esker, erraz birzikla daitezkeen hondakinak hobeto aprobetxatu eta gehiago baloratuko dira. Hortaz, energia aurrezteaz gain, hondakinen bolumena nabarmen gutxituko da.

“Zure traste zaharrak erabiltzeko gauza ez bazara, natura ere ez.”




4- BIRZIKLATU

ERABILITAKO OLIOA BOTATZEKO EDUKINONTZIAK (2010eko otsaila)

Hondakin hau harraskatik behera botatzen badugu, kalte handia egingo diogu araztegiari, eta ibaia kutsatuko dugu.

Aski da sukaldeko olioak plastikozko ontzi batean gorde eta tapoia ixtea. Behin ontzia bete ondoren, jarri berri ditugun 10 edukinontzi laranjetariko batean utzi beharko da. Olio hori BIODIESELA egiteko erabiliko da.

Olio birziklatzeko ohitura hartzen joan gaitezen, Elgoibarren dauden merkatarien elkarte biek 2.000 onil berezi salduko dituzte, euro batean, olio plastikozko ontzietara botatzeko.



“Birziklapenak onura handia dakarkigu guztioi. Ez dezagun, bada, zakarrontzira bota.”

EDUKINONTZI URDINA (PAPERERA)

Zer bota daiteke?
egunkariak,
aldizkariak, paperezko
poltsak, kartoizko
kutzak...
Zer ezin da bota?
tetra-brickak

EDUKINONTZI BERDEA (BEIRA)

Zer bota daiteke?
botilak, ontziak eta
kristalezko flaskoak
(hutsak, garbiak eta
estalkirik gabe).
Zer ezin da bota?
kristalezko edalontzi edo
kopak, portzelana,
bonbillak, ispiluak

EDUKINONTZI HORIAK (ONTZIAK)

Zer bota daiteke?
Plastikozko botilak eta
ontziak (garbiak),
latak, brick-ak,
aluminiozko eta
poliespamezko ontziak,
sarezko poltsak,
plastikozko poltsak...
Zer ezin da bota?
sukaldeko tresnak,
gomazko eskularruak,
CDak, biberoiak,
pixoihalak, jostailuak,
hondakin arriskutsuak
(pintura, e.a.)



Hondakinen birziklapenari buruzko informazio gehiago Elgoibarko web orrian duzu

5- EGIN EZAZU KONPOSTA


BIOKONPOSTA (2010eko azaroa)
ELGOIBAR BERDEA programaren baitan biokonposta egiteko programa pilotua jarriko da abian. Gutxi gorabehera, biztanleen %10ek programa horrekin bat egin ahal izango du.

Lehendabiziko fasean, boluntarioak lortzeko ahalegina egingo da. Boluntarioei poltsa biodegradagarriak emango zaizkie hondakinak jasotzeko. Klean jarriko diren edukinontziak erabiltzeko giltza ere emango zaie.

Programan jasotakoaren arabera, edukinontzietan lagatako hondakinak bildu eta konpost bihurtuko dira. Gainera, Udalak konpost hori berrerabiltzeko konpromisoa hartuko du.

LORTU EZAZU ORAIN ZURE KONPOSTAGAILUA:
Etxean lorategia edo baratzea baldin baduzu, eta etxeko hondakinak gutxitu, eta bide batez, ongarririk bat eskuratu nahi baldin baduzu... eman ezazu zure izena
Udalan: telf: 943.744384 edota
ingurumena@elgoibar.net

“Ezin baduzu
zuhaitz bat landatu,
gutxienez,
ongarritu ezazu
lurra.”




6- ENERGIA GARBIA, EGUZKIA ENERGIA, BULTZA EZAZU

PLAKA FOTOBOLTAIKOAK (2010eko uztaila)
Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu pilotu honi esker, plaka fotoboltaikoak instalatuko dira Elgoibarko Udalaren egoitzetan.

Berrikuntza gisa, proiektu pilotu honen baitan, herritarrek plaken akzioak erosteko aukera izango dute, eta horrela, plaken jabe bihurtuko dira. Ondorioz, inbertsiogileek, energia sortzeagatik mozkinak eskuratzeaz gain, plakak erosteak dakartzan onura fiskalak aprobetxatu ahal izango dituzte.

Proiektu pilotu honi esker frogatu nahi da eguzkia energia baliabide energetiko egokia, eta aldi berean, inbertsio bideragarria dela.

“Eguzkia gure energia iturri nagusia baldin bada, zergatik utzi behar dugu beti azken tokian?”



7- BULTZA EZAZU ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

100 BASERRITAN ENERGIA ERAGINKOR ETA BERRIZTAGARRIAK INSTALATZEKO AZTERKETA (2010eko martxoa/ekainak)

Baserri auzoetan energia berriztagarrien erabilera sustatzeko hainbat azterketa egingo ditu Udalak; izan ere, energia berriztagarrien abantailak, dirua aurreratzeko aukerak eta energiaren eraginkortasuna bultzatu nahi ditu Udalak. Beraz, azterketa horiei esker jakin ahal izango dugu energia berriztagarriak instalatzeko zein aukera dagoen Elgoibarko 100 baserritan.

Horrelako azterketei esker, eraikinen beharrian termiko eta elektrikoei buruzko kalkuluak egingo dira, eta irtenbide egokienak proposatuko dira beharrian horiek asetzeko.


Azterketa egin ostean, txosten orokor bat egingo da. Horri esker jakin ahal izango dugu, energia berriztagarriak instalatuz gero, zenbat energia aurreztuko den eta zenbat gutxituko den eguratsera isurtzen dugun CO₂a.



8- EKONOMIA IRAUNKORRA BULTZA EZAZU

IBILGAILU ELEKTRIKOAK (2010eko iraila)
ELGOIBAR BERDEA proiektuan jasotzen diren ekintza berritzaileen artean aipatzekoa da, Elgoibarren eta Eibarren, ibilgailu elektrikoak alokatzeko proiektu pilotua abian jarriko dela.

Herritarrek orduka alokatu ahal izango dituzte ibilgailu elektrikoak herrian bertan, edo inguruetan, joan-etorri laburrak egiteko; betiere, ibilgailu bakoitzaren autonomia eta argindarra kargatzeko estazioak non kokatzen diren kontuan hartuta.

An illustration on a light green background showing a road with white dashed lines. Three cars are on the road: a blue car on the left, a pink car in the center, and a blue car with a rusted texture on the right. Two green trees are on the right side of the road, and a blue cloud with a smiley face is in the sky. A speech bubble points to the pink car.

“Kosturik gabeko erregaia nahi dugu zuretzat eta naturarentzat.”

9- KONTZIENZIA EKOLOGIKOA

ELGOIBAR BERDEAREN bitartez zabalduko diren birziklapen ohitura berriei esker, herritarrak formatu, hezi eta kontzientziatu egingo dira. Horretarako, kontzientzia ekologikoaren inguruko ekintzak antolatuko dira ikasle zein pertsona helduentzat.

BERRERABILERA TAILERRAK (2010eko otsaila) : Gaztelekuan, kartoizko altzariak eta imitaziozko bitxiak egingo dira berrerabilitako gauzekin.

IKASGELA EKOLOGIKOA

1. fasea (2010eko maiatza) . Hilabete batez, Ikastolan eta Institutuan diharduten 12 urteko eskola-umeek etxeetan sortzen dituzten hondakinak pisatuko dituzte.

2. fasea (2010eko urria) : Ikasle horiei etxeko hondakinak berrerabiltzen eta birziklatzen irakatsiko zaie; horretaz gain, kit berezi bat emango zaie, etxeko hondakinak banatuta jasotzeko. Hondakinak berriro ere pisatuko dira, azterketa konparatiboa egiteko.

Udalak, merkatarien elkartearen laguntzarekin, herritarren esku jarriko du hondakinak bereizteko kit-a oso prezio egokian (2 €).



10. MUGI ZAITEZ OINEZ

ESKOLARA OINEZ NOA PROIEKTUA: OIN-ALAI
(2010eko ekaina)

Gaur egun, Elgoibarko Udalak, Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean, “eskolara oinez noa” izeneko proiektua jarri nahi du abian. Ekimena 3 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Proiektuaren xedea, bestalde, ondorengoa izango da: haurrak eskolara oinez eta euren kabuz joan daitezela.

OIN-ALAI proiektuak eskolako autobusaren antzera funtzionatuko du. Ibilbide, ordutegi eta geltoki jakin batzuk izango ditu; baina haurrak oinez joango dira eskolara. Segurtasuna bermatze aldera, hurrek, helduen eta Udaltzainen laguntza izango dute beti.

Proiektu honen bidez, mugikortasun iraunkorra sustatu ez ezik, ikasleen, gurasoen, aiton-amonen eta zaintzaileen arteko harremanak ere sendotu egingo dira.

Proiektua ekainean jarriko da abian. Oporren ostean, irailean, berriro ere ekingo zaio proiektuari, eta ikasturte osoan zehar martxan egongo da.

